

Sabin Arana, eta "espainolismoa"

Euskaldunon Egunkaria, 1992-12-08: 2.

Joan den *azaroaren 25ean* bete ziren 89 urte Sabin Arana hil zela. Aurten ere aipatu da hobe-beharrez bururatu zitzaion 'Liga Vasco-Espainolista' hura. Engracio Aranzadi 'Kizkitzak' adierazten dizkigu ongi arrazoiak: nekeak, ezinak, eragin abertzaleak denak. Halere *1903ko ekainean* bere eraginez *La Patrian* egin zitzaion elkarrizketan adierazten du asmo nagusia: Ahal zen 'Autonomiarik erradikalena' lortzekotan izango zela, eta Arana bera Liga horretatik at geratuz, EAJrekin batera desagertuko zela. *Irailan* ikusten da Alderdiaren barruan Sabinen ordekoa aukeratzeko asmoa; ordurarte bezala, bere konfidantza osoko gizona. Aingeru Zabala, aukeratzen du. Bazekien, noski, hau eboluzioaren aurkakoa zela, eta aukera honekin argi geratzen da Sabinen asmoa, *La Patria* aldizkariak ematen du berria. Badira Alderdi barruan bi joera, baina *azaroaren 8an* irabazten diren hauteskunderen ondoren, bi helburu nagusi aipatzen ditu eragilea den Juan Luis Aranak: 1. Garaipena ospatu; 2. Hemendik aurrera EAJ laguntzarik gabe, bakarrik, joatea. Lau egun gero idazten du Sabinekin: "Pedernales 12-XI-1903. Muy querido Gotzon. Estoy sumamente débil. He llegado al minimum de fuerzas de todo el curso del mal. Dispénsame de hacer lo que te prometí". Eta ohar bat eransten dio: "Creo que ya no es tampoco tan preciso como antes". Alegia: Zabalari agindu zion 'Eusko Espainolismoa' diseinatzea, "ez dela jadanik hain beharrezko". Beraz, Don Luisekin proposatu zituen zuzendaritzarako zazpi abertzale. *Azaroaren 21.ean* Sabin hil baino lau egun lehenago izenpetu zuen Zabalak aurreproiektua, eta idatzi zuen azpian "ejercítese y cúmplase estrictamente". Hemen amaitu zen formalki planteiatu ere egin ez zen 'espainolismoa'.